

ESPAZIO FISIKOA: GURE BIZILEKUA
DBH 3

1.- Zerez dago estalita Lurrazalaren zati handiena?

- Itsasoz
- Ozeanoz
- Itsasoz eta ozeanoz

2.- Zerez osaturik dago Lurrazala?

- Urez osatuta
- Plakaz osatuta
- Mendiz osatuta

3.- Uren ekintzak, haizeak, prezipitazioak, temperaturak eta abarrek zer eragin dute lurrazaleko bizitan?

- Ez dute eraginik.
- Erlikebean eragina dute baina ezin dugu antzeman.
- Erlikebearen formak aldatzen dituzte.

4.- Zeintzuk dira erlikebe kontinentalaren forma nagusiak?

- Itsasoa, mendiak eta ordokiak.
- Itsasoa, mendiak, ordokiak eta sakonuneak.
- Mendiak, ordokiak, goi-ordokiak eta sakonuneak.

5.- Lotu zenbakiekin:

- | | |
|----------------|--|
| - Mendiak | - Itsas mailatik nahiko altitude handira dauden eremu lauak. |
| - Goi-ordokiak | - Inguruko lurak baino altitude txikiagoan dauden eremu lauak. |
| - Sakonuneak | - Itsas mailatik altitude txikira dauden lursail lauak dira. |
| - Mendilerroa | - Lur garaiak eta aldapa handikoak dira. |
| - Ordokiak | - Hainbat mendilerroz osatuta daude. |
| - Mendikatea | - Hainbat mendiz osatuta daude. |

6.- Non bizi da biztanleria?

- Ura gertu duten sakonunetan.
- Ura hurbil duten goi-ordokietan.
- Ura hurbil duten ordokietan.

7.- Lotu uraren zikloaren prozesuak bere esanahiarekin.

- | | |
|-----------------|---|
| - Lurrunketa | - Hodeietako ura euri, elur edo txingor bihurturik erortzen da. |
| - Kondentsazioa | - Ura gasetik likidora pasatzen da. |
| - Prezipitazioa | - Ura likidotik gasera pasatzen da. |

8.- Zer erregimien mota du beti ur emari handia duen ibai batek?

9.- Zer erregimen mota du batzuetan ur gutxi eta beste batzuetan ur asko duen ibai batek?

10.- Lotu.

- | | |
|-------------------|--|
| - Ozeanoa | - Ur gezako etengabeko ur-lasterrak dira. |
| - Ibaia | - Ur-masa iraunkor eta itxiak dira. |
| - Aintzira | - Lurzoru porotsuan sartzen diren urak dira. |
| - Lur azpiko urak | - Ur gaziko masa handiak dira. |

11.- Lurraren gainazalaren zer ehunekoa dago urez estalita?

- %67,5a
- %70a
- %60a

12.- Ze elementu aztertu behar dira klima zehazteko?

- Tenperaturak eta prezipitazioak.
- Presio atmosferikoa eta haizea.
- Guztiak zuzenak dira.

13.- Zeintzuk dira klimaren faktoreak?

- Latitudea, altitudea eta itsasoa.
- Latitudea, altitudea eta presioa.
- Latitudea, altitudea eta prezipitazioak.

14.- Latitudearen arabera zenbat klima-zona bereizten dira?

- Bost zona: bi zona epel, bi zona hotz eta bero bat.
- Hiru zona: klima beroa, epela eta hotza.
- Sei zona: bi zona epel, bi bero eta bi hotz.